

Pornografiaren kontsumoa neurtzeko tresnak eta haien ezaugarri psikometrikoak: irismen-berrikuspena

Izar Aldalur Irazusta, Joanes Lameirinhas Ortuoste
Psikologia Fakultatea (EHU)

Azken hamarkadotan pornografiaren kontsumoa nabarmen areagotu da, eta kontsumo horretatik erator daitezkeen ondorioek kezka handia eragin dute. Pornografiaren kontsumoak izan ditzakeen efektuak aztertzeko, hura neurtzeko tresna fidagarriak eta baliozkoak ezinbestekoak dira. Irismen-berrikuspen honen helburua da kontsumo hori neurtzeko tresnak identifikatzea eta haien ezaugarri psikometrikoak aztertzea. Ikerlanen bilaketa Inguma, MEDLINE, PSICODOC, PsycInfo, Scopus eta Web of Science Core Collection datu-baseetan egin zen. Guztira 16 tresna barne hartu ziren. Emaitez adierazten dute: 1) Tresnek, oro har, fidagarritasun-eta baliozkotasun-ebidentzia onargarriak dituztela; 2) Tresna gehienak 18 urtetik gorako laginekin baliozkotu direla; eta 3) Tresna batetik bestera dimentsioen kopurua eta esanahia aldakorra dela. Pornografiaren kontsumoari buruzko definizio operazionalak askotarikoak direnez, etorkizunari begira, konstruktuari buruzko definizio adostu bat eraikitzea beharrezkoa da. Horrek aukera emango du neurketa-tresna zehatzagoak eraikitzeko, bai eta gerora esku-hartze eraginkorragoak diseinatzeko ere, pornografiaren kontsumoaren ondorioei modu egokiagoan heltze aldera.

GAKO-HITZAK: Pornografia · Neurketa-tresnak · Ezaugarri psikometrikoak · Irismen-berrikuspena.

Instruments for assessing pornography consumption and their psychometric properties: a scoping review

In recent decades, pornography consumption has significantly increased, raising concerns about its potential consequences. Analyzing the possible effects of pornography consumption requires reliable and valid assessment instruments. The aim of this scoping review was to identify instruments used to assess this consumption and analyze their psychometric properties. A literature search was conducted in the Inguma, MEDLINE, PSICODOC, PsycInfo, Scopus, and Web of Science Core Collection databases. Sixteen instruments were identified. The results show that: 1) The instruments generally demonstrate acceptable evidence of reliability and validity; 2) Most instruments have been validated with samples over 18 years old; and 3) The number and meaning of dimensions vary across instruments. The diversity in operational definitions of pornography consumption highlights the need for a standardized definition of the construct. This would enable the development of more precise assessment instruments and the design of more effective interventions to address the effects of pornography consumption.

KEY WORDS: Pornography · Assessment instruments · Psychometric properties · Scoping review.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5143>

Jasotze-data: 2024-10-22 *Onartze-data:* 2025-03-14

1. Sarrera

Pornografiaren kontsumoak nabarmen gora egin du azken bi hamarkadetan (Irizarry *et al.*, 2023). Urte batzuk atzera, pornografiaren kontsumoa mugatua zegoen; izan ere, aurrez aurreko erosketaren bidez soilik lortu zitekeen eduki pornografikoa (Ballester *et al.*, 2022). Haatik, Interneten agerpenarekin batera, eta telefono adimendunen merkaturatzea tarteko, pornografia kontsumitzeko modua erabat aldatu da: orain material pornografikoa eskuragarria eta doakoa da, eta haren kontsumoa modu anonimoan egin daiteke (Sharpe eta Mead, 2021). Pornografia eskuragarria da milioika webgune daudelako eguneko 24 orduetan erabilgarri, material pornografiko amaigabearekin; doakoa da webgune askoren sarbidea librea delako (hots, ez dira ordainpekoak); eta anonimoa da kontsumitzaileek beren identitatea ezkuta dezaketelako. Hainbat autoreren arabera, hiru ezaugarri horiek dira, hain zuzen ere, material pornografikoaren kontsumoaren igoera azaltzen dutenak (adibidez, Cooper, 1998; de Alarcón *et al.*, 2019; Spencer *et al.*, 2025).

Aurreko arrazoiengatik, beraz, pornografiaren kontsumitzaileen kopurua eta harekiko kontsumitzaileen atxikimendu-maila esponontzialki areagotu dira (Potenza, 2018). Ildo horretatik, Pornhub webgune pornografikoaren berrikuspenen arabera, webguneak 2018an eguneko 100 milioitik gora bisitaldi izan zituen (Pornhub Insights, 2019) eta 2019an eguneko 115 milioi bisitaldi inguru (Pornhub Insights, 2020). Gainera, webgune pornografikoek, gainerako webguneekin alderatuta, bisitaldi gehiago dituzte, eta, halaber, orrialde bat ikusi ondoren webgunetik alde egiten duten bisitarien ehuneko baxuenak dituzte; hau da, oso ikustatuak ez ezik, ikuslea gehien harrapatzen dutenak ere badira (Wright *et al.*, 2023). Oro har, ikerketek estimatzen dute pornografiaren kontsumoaren prebalentzia altua dela, eta, batez ere, gizonezkoetan (% 96), emakumezkoekin alderatuta (% 61) (Ballester-Arnal *et al.*, 2021).

Hainbat ikerketaren arabera, pertsonak askotariko arrazoiengatik hautatzen dute pornografia kontsumitzea: erlaxatzeko, sexualki asetzeko, sexualitatea esploratzeko, sexualitatearen inguruan ikasteko eta plazera sentitzeko, besteak beste (Bolshinsky eta Gelkopf, 2019; Hare *et al.*, 2015; Mauer-Vakil eta Bahji, 2020; Ross *et al.*, 2012). Dena dela, pornografiaren kontsumoak ondorio garrantzitsuak eta askotarikoak izan ditzake (Spenhoff *et al.* 2013). Horren adibide dira norbere gorputzarekin gustura ez egotea, emakumeak objektu sexualtzat hartzea, harreman intimoetan enpatia galtzea, elikadura-jokabidearen nahasmenduak garatzea, sexu-harremanekiko itxaropen irrealak sortzea, indarkeriazko jokabideak zilegitzea eta barneratzea, eta abar (Binnie eta Reavey, 2020; Duggan eta McCreary, 2004; Fernández-Ruiz *et al.*, 2023; Litsou *et al.*, 2021; Miller *et al.*, 2018; Owens *et al.*, 2012). Are gehiago, azpimarratu izan da pornografiaren kontsumoak indarkeria matxistaren normalizazioa eta areagotzea ekar ditzakeela (Wright *et al.*, 2016).

Pornografiaren kontsumoak izan ditzakeen ondorioen berri izanik, horiek prebenitzea edota horien efektu negatiboak gutxitzea garrantzitsua da. Argi dago ia ezinezkoa dela saihestea pertsonak pornografia kontsumitzea. Are gehiago, eraginkorra ez dela aurkitu da; izan ere, webgune pornografikoetara ez sartzeko

konbentzitzean oinarritutako orain arteko prebentzio-neurriek porrot egin dute (Yar, 2020). Hala bada, oraindik esku-hartze mota ugari daude esploratzeko arlo honetan (Ballester *et al.*, 2022).

Pornografiaren kontsumoaren arriskuak murriztera bideratutako esku-hartzeen eraginkortasuna aztertzeko, garrantzitsua da kontsumo hori neurtzeko tresnen existentzia; eta ez hori bakarrik, beharrezkoa da tresna horiek baliozkotuta egon daitezen eta ezaugarri psikometriko egokiak izan ditzaten. Izan ere, neurketa egokirik gabe, ezinezkoa da esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzea eta ebidentzian oinarritutako estrategiak diseinatzea (Flake eta Fried, 2020).

Aurreko guztia kontuan hartuta, lan honetan jasotzen den berrikuspenaren helburu nagusia da pornografiaren kontsumoa neurtzeko erabiltzen diren tresnak identifikatzea eta haien ezaugarri psikometrikoak aztertzea. Azterlan horren bidez, gai horri buruzko orain arteko ebidentziaren laburpena eskaini nahi da, bai eta pornografiaren kontsumoaren neurketari dagokionez egon daitezkeen mugak eztabaidatu ere, etorkizunean alor horretan egin beharreko ikerketak bideratzeko. Azpimarratu nahi da lan honen helburua ez dela tresnetako bakoitzaren kalitate psikometrikoa xeheki ebaluatzea, baizik eta haien ezaugarri psikometrikoak deskribatzea. Tresnen kalitate psikometrikoa ebaluatzeko kanpo-irizpide estandarizatuak erabiltzea komeni da, hala nola *Cuestionario de Evaluación de Tests Revisado* (CET-R; Hernández *et al.*, 2016), estatu-mailan erreferentziazkoa dena.

2. Metodologia

2.1. Ikerketa-diseinua

Ikergaiaren zabaltasunaren kariaz, irismen-berrikuspenaren metodologia erabiltzea erabaki zen. Irismen-berrikuspena gai konkretu bati buruzko orain arteko ezagutza sistematikoki aztertzen duen literatura-berrikuspen mota da, ezagutza hori ikuspegi kritiko batetik laburbiltzeko helburua duena (Munn *et al.*, 2018). Berrikuspen sistematikoek ez bezala, zeintzuek gai zehatzagoei erantzuna ematea baitute helburu (adibidez, gaixotasun jakin bat tratatzeko farmakorik eraginkorrena zein den), irismen-berrikuspenek ikerketa-galdera zabal eta arakatzaile bati heltzen diote; eta, horretarako, bilaketa-, hautaketa- eta laburbiltze-prozesu sistematiko bati jarraitzen diote (Peters *et al.*, 2021).

Irismen-berrikuspena JBI Scoping Review Methodology Group aditu-taldearen marko metodologikoaren arabera gauzatu da (Peters *et al.*, 2020; Pollock *et al.*, 2023); izan ere, irismen-berrikuspenak aurrera eramateko gidalerro eguneratuenak eskaintzen ditu. Gidalerro horiek, era berean, irismen-berrikuspenei buruzko ekarpen klasikoetan oinarritzen dira (adibidez, Arksey eta O'Malley, 2005; Levac *et al.*, 2010). Bestalde, berrikuspena *Preferred Reporting Items for Systematic Reviews and Meta-Analysis Extension for Scoping Reviews* (PRISMA-ScR; Tricco *et al.*, 2018) adierazpenaren gidalerroei jarraikiz aurkeztuko da.

2.2. Hautagarritasun-irizpideak

2.2.1. Populazioa

Edozein ikerketa-populazioarekin egindako ikerlanak hartu ziren kontuan.

2.2.2. Kontzeptua

Berrikuspenean barne hartzeko, ikerlanek pornografiaren kontsumoa neurtzeko tresna baten eraikuntza- eta baliozkotze-prozesuak deskribatu behar zituzten. Gainera, jatorrizko bertsioak soilik hartu ziren aintzat, halako moduan non kultura arteko egokitzenak zein moldatutako bertsioak (adibidez, bertsio laburtuak) baztertu egin ziren. Beste konstruktua bat neurtzeko tresna zabalago baten barnean pornografiaren kontsumoa dimentsio gisa barne hartzen duten tresnak baztertu egin ziren.

2.2.3. Testuingurua

Edozein testuingurutan egindako ikerlanak onartu ziren. Ez zen mugarik ezarri kokapen geografikoari eta argitalpen-datari dagokienez.

2.2.4. Iturrien tipologia

Helburua ikerketa originalak eta enpirikoak aztertzea zenez, berrikuspen-artikuluak (berrikuspen sistematikoak, irismen-berrikuspenak, etab.) eta meta-analisiak alde batera utzi ziren. Hala eta guztiz ere, baztertutako artikulu horietako erreferentzia bibliografikoen zerrendak miatu egin ziren baliagarriak izan zitezkeen ikerlan gehigarriak identifikatzeko aldera. Horrez gain, literatura grisaren definizioarekin bat zetozen dokumentuak ere onargarritzat jo ziren (adibidez, tesiak eta txostenak). Hizkuntzari dagokionez, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratutako lanak hautagarritzat jo ziren.

2.3. Informazio-iturriak eta bilaketa-estrategiak

Bilaketak 2024ko martxoan egin ziren, honako datu-base akademiko hauetan: Inguma, MEDLINE, PSICODOC, PsycInfo, Scopus eta Web of Science Core Collection. Bilaketa-estrategiak bi kidek diseinatu zituzten: sexu-heziketan esperientzia duen pertsona batek eta psikometriako gaiekin aritzen den pertsona batek. Bilaketa-estrategiak 1. taulan aurkezten dira.

1. taula. Bilaketa-estrategiak.

DATU-BASEA	BILAKETA-ESTRATEGIA
Inguma	title:porn*
MEDLINE	TI=(porn* OR "sexually explicit" OR "sex* content*" OR "sex* video*" OR "adult* content*" OR "adult* video*" OR "erotic content*" OR "erotic video*") AND TI=(assess* OR evaluat* OR measur* OR test* OR screen* OR scale OR indicator OR questionnaire OR instrument OR tool OR inventory OR checklist)
PSICODOC	TI (porn* OR "sexually explicit" OR "sex* content*" OR "sex* video*" OR "adult* content*" OR "adult* video*" OR "adult* content*" OR "erotic content*" OR "erotic video*") AND TI (assess* OR evaluat* OR measur* OR test* OR screen* OR scale OR indicator OR questionnaire OR instrument OR tool OR inventory OR checklist)
PsycInfo	TI (porn* OR "sexually explicit" OR "sex* content*" OR "sex* video*" OR "adult* content*" OR "adult* video*" OR "erotic content*" OR "erotic video*") AND TI (assess* OR evaluat* OR measur* OR test* OR screen* OR scale OR indicator OR questionnaire OR instrument OR tool OR inventory OR checklist)
Scopus	TITLE (porn* OR "sexually explicit" OR "sex* content*" OR "sex* video*" OR "adult* content*" OR "adult* video*" OR "erotic content*" OR "erotic video*") AND TITLE (assess* OR evaluat* OR measur* OR test* OR screen* OR scale OR indicator OR questionnaire OR instrument OR tool OR inventory OR checklist)
Web of Science Core Collection	TI=(porn* OR "sexually explicit" OR "sex* content*" OR "sex* video*" OR "adult* content*" OR "adult* video*" OR "erotic content*" OR "erotic video*") AND TI=(assess* OR evaluat* OR measur* OR test* OR screen* OR scale OR indicator OR questionnaire OR instrument OR tool OR inventory OR checklist)

Oharra. Izartxoak (*) trukatze-eragile gisa jokatzen du, erro beretik abiatzen diren hitz eratorri guztiak antzemateko, eta, horrela, bilaketa zabaltzeko. Esate baterako, "measur*" bilaketa-termino gisa erabilia, "measure", "measurement" eta "measuring" bezalako hitzak detektatzen dira.

2.4. Ikerlanen hautaketa

Datu-baseetatik jasotako erregistro guztiak Excel-eko kalkulu-orri batera inportatu ziren, eta bikoiztuak eskuz kendu ziren. Gainerako erregistroak aldeztuak adostutako hautagarritasun-irizpideei jarraikiz bahetu ziren, bi faseetan: lehena, izenburu eta laburpenetan oinarritua; eta bigarrena, testu osoan. Bi baheketa-faseetan, bi ebaluatzailek parte hartu zuten. Ebaluatzaile horiek, lehenengo, paraleloki egin zuten lan (hau da, bakoitzak bere kasa aztertu zituen erregistroak), eta, ondoren, beren ebaluazioak alderatzeko bildu ziren. Ebaluatzaileen arteko fidagarritasuna Cohen-en kappa koefizientearen (κ) bidez neurtu zen, eta estatistiko horren interpretaziorako Landis eta Koch-en (1977) irizpideak erabili ziren.

Ebaluatzaileen arteko desadostasunak erregistratu ondoren, eztabaidaren bitartez aurkitu zitzairen irtenbidea. Azkenik, kideetako batek berrikuspenetik baztertutako artikuluen erreferentzia bibliografikoak miatu zituen, baliagarriak izan zitezkeen erreferentziak identifikatuz, eta horien egokitasuna bi kideek batera eztabaidatu zuten.


2.5. Datuen erauzketa

Barne hartutako ikerketa bakoitzetik hiru informazio mota erauzi ziren. Alde batetik, ikerketen ezaugarri deskribatzaileak atera ziren: argitalpenaren iturria, estatua edo/eta herrialdea, ikerketa-populazioa edo/eta testuingurua, eta ikerketaginen estatistiko deskribatzaileak (laginaren tamaina, adin-tartea, batez besteko adina, adinaren desbideratze tipikoa eta emakumezkoen ehunekoa). Beste aldetik, ikerketa horietan deskribatzen diren tresnen ezaugarri orokorrak atera ziren: dimentsioak edo/eta azpieskalak, item-kopurua, erantzun-aukerak eta horien kodifikazioa, puntuazioaren interpretazioa, eta aplikazio-denbora. Azkenik, tresnen ezaugarri psikometrikoak erauzi ziren: fidagarritasunari dagozkionak (barne-trinkotasuna eta denbora-egonkortasuna) eta baliozkotasunari dagozkionak (barne-egituraren oinarritutako baliozkotasuna, baliozkotasun konbergentea eta beste aldagaiekiko erlazioan oinarritutako baliozkotasuna). Intereseko informazioa ebaluatzaile batek erauzi zuen eta prozesua beste ebaluatzaileak gainbegiratu zuen. Baheketa-prozesuan bezala, desadostasunak edota zalantzak eztabaida bidez konpondu ziren.

3. Emaizak

3.1. Ikerlanen hautaketa

1. irudian ikerlanen hautaketa-prozesua irudikatzen da. Datu-base elektronikoetan egindako literatura-bilaketaren bitartez 671 erregistro lortu ziren, eta horietatik 379 bikoiztu ezabatu ziren. Baheketaren lehenengo fasean 292 erregistro ebaluatu ziren izenburu eta laburpenetan oinarrituta, eta 273 erregistro baztertu ziren. Baheketaren bigarren fasean gainerako 19 erregistroen testu osoak izan ziren aztertuak, eta 4 kanpo utzi ziren. Ebaluatzaileen arteko fidagarritasuna sendoa izan zen, bai lehenengo fasean ($\kappa = 0,71$), bai bigarren fasean ($\kappa = 0,94$). Bestalde, baheketa-prozesuan baztertutako berrikuspen-artikuluetakoa erreferentziak miatu ziren, eta, baliagarriak izan zitezkeen testu osoak irakurri ostean, ikerlan bat gehitu zen. Berrikuspenean guztira 16 ikerlan barne hartu ziren.



1. irudia. Ikerlanen hautaketa-prozesua.

3.2. Ebidentzia-iturrien ezaugarriak

Baheketa-lanaren ostean identifikatutako 16 artikuluen ezaugarriak biltzen dira 2. taulan. Datuen interpretazioa errazte aldera, tresnak kronologikoki aurkezten dira, argitaratze-dataren arabera.

Argitaratze-datari dagokionez, artikulua 2008 eta 2024 artekoak dira, baina artikuluen erdiak baino gehiago ($n = 9$) 2018. urtetik aurrera argitaratu dira. Ia artikulua guztiak ($n = 13$) sexologiarekin eta jokabide-adikzioekin erlazionatutako aldizkari espezifikoetan argitaratu dira; batez ere, *Archives of Sexual Behavior*, *Addictive Behaviors* eta *Sexual Addiction & Compulsivity* aldizkarietan. Herrialdeari dagokionez, tresna gehienak ($n = 8$) Ameriketako Estatu Batuetan baliozkotu dira.

Bestalde, tresnak ikerketa-populazio oso ezberdinekin baliozkotu dira. Ildo horretatik, aipatu behar da lau ikerlan gizonetan soilik zentratu direla. Ikerketa-laginari helduz, ikerlanen laginaren tamainak 44 eta 2.075 artean kokatzen dira. Tresna guztiak 18 urtetik gorako laginekin baliozkotu dira, bat izan ezik, zeinean 16 urtetik gorako laginak hartu baitituzte kontuan. Generoari dagokionez, emakume partaideen ehunekoa 0 eta 54,1 artekoa da.

3.3. Neurketa-tresnen ezaugarriak

Barne hartutako tresnen ezaugarri orokorrak eta ezaugarri psikometrikoak 3. taulan eta 4. taulan aurkezten dira, hurrenez hurren.

Tresnen ezaugarri orokorrei dagokienez, pornografiaren kontsumoa neurtzeko dimentsioak edota azpieskalak nabarmen aldakorrak dira tresna batetik bestera, bai esanahian, bai kopuruan. Lau tresnak konstruktuen ikuskera unidimentsionala hartzen dute eta gainerako hamabiek, ordea, ikuspegi multidimentsionala. Azken horietan, dimentsio edota azpieskalen kopurua 2 eta 13 artekoa da. Gainera, ikus daitekeenez, tresnek neurtzen dituzten konstruktuen osagaiak askotarikoak dira: kontsumoaren maiztasuna, kontsumoaren iraupena, kontsumoarekiko konpultsioa, pornografiarekiko jarrerak eta abar. Nolanahi ere, antzeman daitekeenez, tresna batzuk gehiago zentratzen dira kontsumo problematikoa edo adiktiboa neurtzean (adibidez, PPUS eta PPCS), eta beste batzuk, aldiz, pornografiaren erabilera arruntean (adibidez, PUM eta COPS-G). Tresnen luzerari helduz, luzera ezberdinetako tresnak daudela ikus daiteke, itemen kopurua 5 eta 56 bitartekoa delarik. Tresna batean izan ezik, non eskala analogiko bisual bat erabiltzen den, gainerako tresnetan Likert eskala da neurketa-eskala erabiliena. Hala ere, Likert eskala erabiltzen duten tresna batzuetan ($n = 3$) eskala nominalak ere tartekatzen dituzte (adibidez, bai/ez gisakoak). Bestalde, ia ikerlan guztietan ($n = 13$) tresnen amaierako puntuazioaren interpretazioak eskaintzen dira. Ildo horretatik, aipatu behar da pornografiaren kontsumo arazotsua adieraz dezaketen ebaketa-puntuak bi tresnak bakarrik ematen dituztela. Amaitzeko, tresnaren aplikazio-denborari dagokion informazioa ikerlan bakarrean dago eskuragarri.

Tresnen ezaugarri psikometrikoei eutsiz, eta fidagarritasunean zentratuz, ikerlan guztiek aurkeztu dituzte tresnaren barne-trinkotasunari dagozkion indizeak. Indize

horiek, oro har, 0,70 eta 0,95 artean kokatu dira; hots, balio onargarriak agertu dituzte. Aitzitik, denbora-egonkortasuna edota test-birtest fidagarritasuna soilik hiru ikerlanetan aztertu da. Horietan, tresnek denbora-egonkortasun sendoa agertu dute, neurketen arteko korrelazioak efektuaren tamaina handikoak baitira (0,70etik gorakoak). Bestalde, ikerlanek tresnen baliozkotasunari dagozkion ebidentziak ere ematen dituzte. Barne-egituran oinarritutako baliozkotasuna tresna guztietan miatu da, faktore-analisi arakatzaileak, berrespenezkoak edota biak aurrera eraman direlarik. Kontrara, baliozkotasun konbergentea zazpi tresnak aztertu dute, antzeko beste tresnekin korrelazioak kalkulatz. Amaitzeko, beste aldagaiekiko erlazioan oinarritutako baliozkotasunari buruzko ebidentziak ia tresna guztietan ($n = 11$) arakatu dira. Aipa bedi ebidentzia horiek lortzeko askotariko aldagaiak aintzat hartu direla, bai ikerlan berean, bai ikerlan batetik bestera.

2. taula. Barne hartutako ikerlanen ezaugarriak.

ERREFE- RENTZIA	ITURRIA	HERRIALDEA	IKERKETA-POPULAZIOA EDO TESTIUNGURUA	IKERKETA-LAGINA		
				LAGINAREN TAMAINA	ADIN-TARTEA (BATEZBESTEKOA; DESBIDERATZE TIPIKOA)	EMAKUMEEN %
Haid eta Malamuth (2008)	Archives of Sexual Behavior	Danimarka	Danimarkako 18 eta 30 urte arteko gazte heterosexuallak	688	18-30 urte (<i>B</i> = E. E.; <i>DT</i> = E. E.)	% 54,1
Grubbs <i>et al.</i> (2010)	Sexual Addiction & Compulsivity	AEB	Unibertsitate ebanjeliko bateko psikologiako ikasleak	145	18 urteik gora (<i>B</i> = E. E.; <i>DT</i> = E. E.)	% 35,2
Reid <i>et al.</i> (2011)	Journal of Sex & Marital Therapy	AEB	Gizon hipersexuallak	1. ikerketa: 105 2. ikerketa: 107	1. ikerketa: 18-73 urte (<i>B</i> = 36,5; <i>DT</i> = 12,4) 2. ikerketa: 19-64 urte (<i>B</i> = 34,7; <i>DT</i> = 9,9)	% 0
Downing <i>et al.</i> (2014)	Addictive Behaviors	AEB	Gizonekin sexu-harremanak dituzten gizonak	265	18 urteik gora (<i>B</i> = 32,9; <i>DT</i> = 12,5)	% 0
Kor <i>et al.</i> (2014)	Addictive Behaviors	Israel	Hebreeraz hitz egiten duten israeldarrak	1. ikerketa: 300 2. ikerketa: 1.720	1. ikerketa: 18-69 urte (<i>B</i> = 43,85; <i>DT</i> = 14,34) 2. ikerketa: 18-70 urte (<i>B</i> = 39,52; <i>DT</i> = 14,18)	% 40 % 51,5
Kraus eta Rosenberg (2014)	Archives of Sexual Behavior	AEB	Gizonak diren ikasle unibertsitarioak	1. ikerketa: 221 2. ikerketa: 44	1. ikerketa: 18 urteik gora (<i>B</i> = 21,8; <i>DT</i> = 3,8) 2. ikerketa: 18 urteik gora (<i>B</i> = 20,2; <i>DT</i> = 2,4)	% 0
Noor <i>et al.</i> (2014)	Sexual Addiction & Compulsivity	AEB	Gizonekin sexu-harremanak dituzten gizonak	1.165	18 urteik gora	% 0
Böthe <i>et al.</i> (2018)	Journal of Sex Research	Hungaria	E. E.	772	18-54 urte (<i>B</i> = 22,58; <i>DT</i> = 4,89)	% 50,5
Cacioppo <i>et al.</i> (2018)	Clinical Neuropsychiatry	Italia	Unibertsitate edo institutuko ikasleak	201	18 urteik gora (<i>B</i> = 27,43; <i>DT</i> = 9,2)	% 54,3
Busby <i>et al.</i> (2020)	Archives of Sexual Behavior	AEB	AEBko populazio orokorra	1.639	18-77 urte (<i>B</i> = 34; <i>DT</i> = E. E.)	% 42
Hatch <i>et al.</i> (2020)	Sexual and Relationship Therapy	AEB	AEBko populazio orokorra	317	E. E. (<i>B</i> = 36,32; <i>DT</i> = 10,20)	% 44,5

Kraus <i>et al.</i> (2020)	Journal of Behavioral Addictions	AEB	1. ikerketa: AEBko militar beteranoak 2. ikerketa: AEBko helduak 3. ikerketa: AEBko helduak	1. ikerketa: 283 2. ikerketa: 2.075 3. ikerketa: 470	1. ikerketa: 18 urtetik gora ($B = 35,1$; $DT = 9,2$) 2. ikerketa: 18 urtetik gora ($B = 44,8$; $DT = 16,7$) 3. ikerketa: 18 urtetik gora ($B = 44,9$; $DT = 15,9$)	1. ikerketa: % 29,4 2. ikerketa: % 51 3. ikerketa: % 28
Rahman <i>et al.</i> (2020)	Malaysian Journal of Medical Sciences	Malaysia	16 eta 24 urte arteko gazte malaysiarak	1. ikerketa: 150 2. ikerketa: 198	1. ikerketa: 16-24 urte ($B = 19,6$; $DT = 0,7$) 2. ikerketa: 16-24 urte ($B = 20,4$; $DT = 1,6$)	1. ikerketa: % 50,7 2. ikerketa: % 34
Ergün (2023)	Behavioral Psychology / Psicología Conductual	Turkia	E. E.	1. ikerketa: 252 2. ikerketa: 157 3. ikerketa: 148	1. ikerketa: 18-50 urte ($B = 29,18$; $DT = 20,36$) 2. ikerketa: 18-49 urte ($B = 25,82$; $DT = 6,60$) 3. ikerketa: 18-49 urte ($B = 26,21$; $DT = 6,67$)	1. ikerketa: % 39,3 2. ikerketa: % 31,2 3. ikerketa: % 32,4
Lawless <i>et al.</i> (2023)	Archives of Sexual Behavior	Munduan zeharreko hainbat herrialde	Harreman erromantikoetan dauden pertsonak	1. ikerketa: 739 2. ikerketa: 765	1. ikerketa: 18-72 urte ($B = 28,60$; $DT = 7,81$) 2. ikerketa: 18-76 urte ($B = 29,58$; $DT = 8,33$)	1. ikerketa: % 21,7 2. ikerketa: % 19,9
Brahim <i>et al.</i> (2024)	Addictive Behaviors	Munduan zeharreko hainbat herrialde	Ingelesa dakiten online pornografiaren kontsumitzaileak	1.584	18-75 urte ($B = 33,18$; $DT = 10,84$)	% 35,2

Oharra. AEB = Ameriketako Estatu Batuak; E. E. = Ez eskuragarri.

3. taula. Barne hartutako tresnen ezaugarri orokorrak.

ERREFE- RENTZIA	TRESNA	DIMENTSIOAK EDO/ETA AZPIESKALAK	ITEMEN KOPURUA	ERANTZUN- AUKERAK ETA KODIFIKAZIOA	PUNTUAZIOAREN INTERPRETAZIOA	APLIKAZIO- DENBORA
Hald eta Malarmuth (2008)	Pornography Consumption Effect Scale (PCES)	2 dimentsio: - Kontsumoaren efektu positiboak (5 konstruktutan: bizitza sexuala; bizitza orokorrean; sexuarekiko jarrerak; beste generoarekiko pertzepzioa eta jarrerak; jakintza sexuala) - Kontsumoaren efektu negatiboak (4 konstruktutan: bizitza sexuala; bizitza orokorrean; sexuarekiko jarrerak; beste generoarekiko pertzepzioa eta jarrerak)	47	7 puntuko Likert eskala, non: 1 = Batera ez 2 = Neurri oso txikian 3 = Neurri txikian 4 = Neurri ertainean 5 = Neurri handian 6 = Neurri oso 7 = Neurri oso-oso handian	Efektu positiboen dimentsioan, amaierako puntuazioa 27 eta 189 bitartekoa da. Ez dago ebaketa-punturik. Zenbat eta puntuazio altuagoak, pornografiaren kontsumoaren eragina are eta txikiagoa.	E. E.
					Efektu negatiboen dimentsioan, amaierako puntuazioa 20 eta 140 artekoa da. Ez dago ebaketa-punturik. Zenbat eta puntuazio altuagoak, pornografiaren kontsumoaren eragina are eta handiagoa.	
Grubbs <i>et al.</i> (2010)	Cyber- Pornography Use Inventory (CPUi)	3 azpieskala: - Adikzio-ereduak - Errua online pornografiaren erabilerari dagokionez - Online portaera sexuala-soziala	31	Item batzuetan 7 puntuko Likert eskala (non 1 = Guztiz desados eta 7 = Guztiz ados); beste item batzuetan 5 puntuko Likert eskala (non 1 = Inoiz ez; eta 5 = Beti); eta beste batzuetan erantzun- aukera dikotomikoak (0 = Gezurra; 1 = Egia).	Ez dago ebaketa-punturik. Adikzio-ereduen azpieskalan, zenbat eta puntuazio altuagoak, joera konpulsibo eta adikzioa are eta handiagoa. Erruaren azpieskalan, zenbat eta puntuazio altuagoak, Interneteko pornografiaren erabilerari lotutako erruduntasuna are eta handiagoa.	E. E.
					Online portaera sexuala-soziala azpieskalan, zenbat eta puntuazio altuagoak, online portaera sexuala-soziala are eta handiagoa.	
Reid <i>et al.</i> (2011)	Pornography Consumption Inventory (PCI)	4 azpieskala: - Saiheste emozionala - Jakin-min sexuala - Kitzikapen-bilaketa - Plazer sexuala	15	5 puntuko Likert eskala, non: 1 = Inoiz ez 2 = Gutxitan 3 = Batzuetan 4 = Maiz 5 = Oso maiz	Ez dago ebaketa-punturik. Azpieskala bakoitzean, zenbat eta puntuazio altuagoak, pornografiaren kontsumorako joera are eta handiagoa azpieskalen izenek adierazten duten noranzkoan.	E. E.

ERREFE- RENTZIA	TRESNA	DIMENTSIOAK EDO/ETA AZPIESKALAK	ITEMEN KOPURUA	ERANTZUN- AUKERAK ETA KODIFIKAZIOA	PUNTUAZIOAREN INTERPRETazioA	APLIKAZIO- DENBORA
Downing <i>et al.</i> (2014)	Compulsive Internet Use Scale Adapted (CIUS- Adapted)	—	13	5 puntuko Likert eskala, non: 0 = Inoiz ez 1 = Gutxitan 2 = Batzuetan 3 = Maiz 4 = Oso maiz	Amaierako puntuazioa 0 eta 52 bitartekoa da. Ez dago ebaketa-punturik. Zenbat eta puntuazio altuagoak, Interneteko eduki sexual esplizituaren erabilera konpulsiboa are eta handiagoa.	E. E.
Kor <i>et al.</i> (2014)	Problematic Pornography Use Scale (PPUS)	4 dimentsio: • Larritasuna eta arazo funtzionalak • Gehiegizko erabilera • Kontrolatzeko zailtasunak • lhes egiteko edo emozio negatiboak salhesteko erabilera	12	6 puntuko Likert eskala, non: 0 = Inoiz ez egia 1 = Gutxitan egia 2 = Batzuetan egia 3 = Maiz egia 4 = Oso maiz egia 5 = la beti egia	Amaierako puntuazioa 0 eta 60 bitartekoa da. Ez dago ebaketa-punturik. Zenbat eta puntuazio altuagoak, pornografiaren erabilera arazotsua are eta handiagoa.	E. E.
Kraus eta Rosen- berg (2014)	Pornography Craving Questionnaire (PCQ)	—	12	7 puntuko Likert eskala, non: 1 = Guztiz desados 2 = Nahiko desados 3 = Pixka bat desados 4 = Ez ados, ez desados 5 = Pixka bat ados 6 = Nahiko ados 7 = Guztiz ados	Amaierako puntuazioa 12 eta 84 bitartekoa da. Ez dago ebaketa-punturik. Zenbat eta puntuazio altuagoak, pornografiarekiko <i>craving</i> -a are eta handiagoa.	E. E.
Noor <i>et al.</i> (2014)	Compulsive Pornography Consumption (CPC) scale	2 dimentsio: • Kezka • Konpulsibitatea	5	7 puntuko Likert eskala (non 1 = Oso maiz; 7 = Inoiz ez).	Lortutako puntuazioak alderantzikatu egiten dira. Amaierako puntuazioa 5 eta 35 bitartekoa da. Ez dago ebaketa-punturik. Zenbat eta puntuazio handiagoa, orduan eta pornografiaren kontsumo arazotsu potentzial handiagoa.	E. E.
					Puntuazioak dimentsio bakoitzeko ere kalkula daitezke.	

ERREFE- RENTZIA	TRESNA	DIMENTSIOAK EDO/ETA AZPIESKALAK	ITEMEN KOPURUA	ERANTZUN- AUKERAK ETA KODIFIKAZIOA	PUNTUAZIOAREN INTERPRETazioA	APLIKAZIO- DENBORA
Böthe <i>et al.</i> (2018)	Problematic Pornography Consumption Scale (PPCS)	6 dimentsio: • Salientzia • Aldartearen aldaketa • Gatazka • Tolerantzia • Berrerortzea • Atzera egitea	18	7 puntuko Likert eskala, non: 1 = Inoiz ez 2 = Oso gutxitan 3 = Gutxitan 4 = Batzuetan 5 = Maiz 6 = Oso maiz 7 = Beti	Amaierako puntuazioa 18 eta 126 bitartekoa da. 76 edo handiagoa den puntuazioak pornografiaren kontsumo arazotsu are eta handiagoa adieraz dezake.	E. E.
				Puntuazioak dimentsio bakoitzeko ere kalkula daitezke; zenbat eta puntuazio altuagoak, dimentsioak adierazten duen portaerarako joera are eta handiagoa.		
Cacioppo <i>et al.</i> (2018)	Cyber Pornography Addiction Test (CYPAT)	—	11	5 puntuko Likert eskala, non: 1 = Inoiz ez 2 = Gutxitan 3 = Batzuetan 4 = Askotan 5 = Beti	Amaierako puntuazioa 11 eta 55 bitartekoa da. Ez dago ebaketa-punturik. Zenbat eta puntuazio altuagoak, orduan eta pornografiarekiko adikzio handiagoa.	E. E.
Busby <i>et al.</i> (2020)	Pornography Usage Measure (PUM)	2 dimentsio: • Erabilera • Selektibotasuna	20	6 puntuko Likert eskala, non: 1 = Inoiz ez 2 = Hilarbetean behin edo gutxiago 3 = Hilarbetean 2 edo 3 egunetan 4 = Astean egun batean edo bitan 5 = Astean 3 eta 5 egun artean 6 = Egunero edo ia egunero	Amaierako puntuazioa 20 eta 120 bitartekoa da. Ez dago ebaketa-punturik. Zenbat eta puntuazio altuagoak, orduan eta pornografiaren erabilera handiagoa.	E. E.

ERREFE- RENTZIA	TRESNA	DIMENTSIOAK EDO/ETA AZPIESKALAK	ITEMEN KOPURUA	ERANTZUN- AUKERAK ETA KODIFIKAZIOA	PUNTUAZIOAREN INTERPRETazioA	APLIKAZIO- DENBORA
Hatch <i>et al.</i> (2020)	The Consumption of Pornography Scale – General (COPS – G)	Dimentsio orokor bat eta 4 azpieskala: • Pornografiaren kontsumoaren maiztasuna • Pornografiaren kontsumoaren iraupena • Nahi gabe egindako pornografiaren esposizioa eta kitzikapena • Nahita egindako pornografiaren esposizioa eta kitzikapena	34	Item batzuetan Likert eskala (dimentsio bakoitzean erantzun-aukera ezberdinekin) eta beste batzuetan erantzun-aukera dikotomikoak (bai/ez).	E. E.	E. E.
	Brief Pornography Screen (BPS)	—	5	3 puntuuko Likert eskala, non: 0 = Inoiz ez 1 = Batzuetan 2 = Oso maiz	Amaierako puntuazioa 0 eta 12 bitartekoa da. 4 edo handiagoa den puntuazioak pornografiaren erabilera arazotsua adieraz dezake.	1-2 minutu
Rahman <i>et al.</i> (2020)	Questionnaire on Pornography Attitudes and Exposure (PORQUE)	5 dimentsio: • Pornografiarekiko sentimentu permisiboak • Pornografiarekiko sentimentu ez-permisiboak • Pornografiarekiko pertzepzio permisiboa • Pornografia irakurtzearen edo ikustearen eraginaren pertzepzioa • Pornografiaren erabilera eragin dezaketen faktoreen pertzepzioa	56	Item batzuetan aukera anitzeko galderak (adibidez, bai/ez/ez dakit), eta beste batzuetan 5 puntuuko Likert eskala (non 1 = Guztiz desados eta 5 = Erabat ados)	E. E.	E. E.
	Online Pornography Addiction Scale (OPAS)	4 azpieskala: • Konpultsibitatea - kontrolaezintasuna • Efektu psikosoziala • Efektu sexuala • Tolerantzia - atzera egitea	23	5 puntuuko Likert eskala: 0 = Inoiz ez 1 = Oso gutxitan 2 = Noizean behin 3 = Batzuetan 4 = Maiz	Amaierako puntuazioa 0 eta 92 bitartekoa da. Ez dago ebaketa-punturik. Zenbat eta puntuazio altuagoa, pornografiaren adikzio-maila are eta handiagoa. Bertina azpieskala bakoitzaren kasuan.	E. E.

ERREFE- RENTZIA	TRESNA	DIMENTSIOAK EDO/ETA AZPIESKALAK	ITEMEN KOPURUA	ERANTZUN- AUKERAK ETA KODIFIKAZIOA	PUNTUAZIOAREN INTERPRETAZIOA	APLIKAZIO- DENBORA
Lawless <i>et al.</i> (2023)	Pornography Use in Romantic Relationships Scale (PURRS)	13 dimentsio: • Maiztasuna • Porno erakargarria • <i>Craving</i> -a • Masturbazioa • Hobetsitako pornoa • Sekretua • Kidearen ordezkapena • Erabileraren bateratua • Hezkuntza sexuala • Harreman-eraketa • Eduki agresiboa • Adostasunik gabeko edukia • Eduki ez-monogamia	38	7 puntuko Likert eskala (erantzun-aukera ezberdinekin item bakoitzean)	E. E.	E. E.
Brahim <i>et al.</i> (2024)	Pornography Craving Experience – Strength form (PCE-S)	3 faktore: • Iruditeria • Intentsitatea • Intrusioa	10	0-10 puntuko eskala analogiko bisuala	Amailerako puntuazioa 0 eta 100 bitartekoa da. Ez du ebaketa-punturik. Puntuazio altuagoek <i>craving</i> handiagoa adierazten dute.	E. E.

Oharra. E. E. = Ez eskuragarri.

4. taula. Barne hartutako tresnen ezaugarri psikometrikoak.

FIDAGARRITASUNA		BALIOZKOTASUNA				
ERREFE- RENTZIA	TRESNA	BARNE-TRINKOTASUNA ¹	DENBORA- EGONKORTASUNA (¹ TEST-BIRTEST FIDAGARRITASUNA)	BARNE-EGITURAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA ²	BALIOZKOTASUN KONBERGENTEA	BESTE ALDAGAIEKIKO ERLAZIOAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA
Hald eta Malamuth (2008)	Pornography Consumption Effect Scale (PCES)	• Efektu positiboen dimentsioa: 0,91 ◦ Bizitza sexuala: 0,91 ◦ Bizitza orokorrean: 0,87 ◦ Beste generoarekiko pertzepzioa eta jarrerak: 0,73 ◦ Sexuarekiko jarrerak: 0,90 ◦ Jakintza sexuala: 0,90 • Efektu negatiboen dimentsioa: 0,82 ◦ Bizitza sexuala: 0,79 ◦ Bizitza orokorrean: 0,83 ◦ Beste generoarekiko pertzepzioa eta jarrerak: 0,72 ◦ Sexuarekiko jarrerak: 0,81	—	Faktore-analisi arakatzaileak bi faktoreko egitura ortogonal iradokitzen du (lehenengoa bost konstrukturekin eta bigarrena laurekin).	—	—
Grubbs <i>et al.</i> (2010)	Cyber- Pornography Use Inventory (CPUi)	• Eskala osoa: — • Azpieskalak: ◦ Adikzio-ereduak: 0,89 ◦ Errua online pornografiaren erabilerrari dagokionez: 0,83 ◦ Online portaera sexuala- soziala: 0,84	—	Faktore-analisi arakatzaileak hiru faktoreko egitura ortogonal iradokitzen du.	—	—

ERREF- RENTZIA	TRESNA	FIDAGARRITASUNA		BALIOZKOTASUNA		BESTE ALDAGAEKIKO ERLAZIOAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA
		BARNE-TRINKOTASUNA ¹	DENBORA- EGONKORTASUNA (TEST-BIRTEST FIDAGARRITASUNA)	BARNE-EGITURAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA ²	BALIOZKOTASUN KONBERGENTEA	
Reid <i>et al.</i> (2011)	Pornography Consumption Inventory (PCI)	1. ikerketan: • Eskala osoa: 0,83 • Azpieskalak: o Saiheste emozionala: 0,85 o Jakin-min sexuala: 0,87 o Kitzikapen-bilaketa: 0,73 o Plazer sexuala: 0,71 2. ikerketan: • Eskala osoa: 0,93 • Azpieskalak: o Saiheste emozionala: 0,95 o Jakin-min sexuala: 0,89 o Kitzikapen-bilaketa: 0,85 o Plazer sexuala: 0,90	2. ikerketan: 34 pertsonaz osatutako azpilagin batekin, bi asteko tartearekin, tresnak denbora- egonkortasun handia agertu zuten ($r = 0,86$; $p < 0,01$).	1. ikerketan: Osagai nagusien analisiak lau faktoreko egitura ortogonal iradokitzen du. 2. ikerketan: Berrespenezko analisi faktorialak 1. ikerketako analisisan agertutako lau faktoreko egitura ortogonal berresten du, dokuntza onargarriarekin.	—	PCI galdetegiko puntuazioak (eskala osoarenak zein azpieskalenak) beste aldagai batzuekin dituzten erlazioak aztertzen dira, besteak beste: jokabide hipersexuala, nortasuna (eta haren alderdi batzuk: antsietatea, depresioa, inpulsibiltatea, emozio positiboak, fantasia, autodiziplina eta zaugarritasuna), bakardadea eta hautemandako estresa.
Downing <i>et al.</i> (2014)	Compulsive Internet Use Scale Adapted (CIUS- Adapted)	0,92	—	Osagai nagusien analisiak osagai bakarreko egitura iradokitzen du.	—	CIUS galdetegiko puntuazioak beste aldagai batzuekin dituen erlazioak aztertzen dira, besteak beste: sentazio sexualen bilaketa, drogen erabilera pornografiaren kontsumoan, pornografiaren erabileraren aurreko edo momentuko egoera afektibo- sexuala eta pornografiaren erabilerarekin lotutako jokabidea.

FIDAGARRITASUNA		BALIOZKOTASUNA	
ERREF- RENTZIA	TRESNA	DENBORA- EGONKORTASUNA (TEST-BIRTEST FIDAGARRITASUNA)	BALIOZKOTASUNA
	BARNE-TRINKOTASUNA ¹	BARNE-EGITURAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA ²	BESTE ALDAGAEKIKO ERLAZIOAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA
Kor <i>et al.</i> (2014)	Problematic Pornography Use Scale (PPUS)	1. ikerketan: - Eskala osoa: 0,92 - Azpieskalak: - Larritasuna eta arazo funtzionalak: 0,91 - Gehiegizko erabilera: 0,86 - Kontrolatzeko zailtasunak: 0,75 - lhes egiteko edo emozio negatiboak saihesteko erabilera: 0,93 2. ikerketan: - Eskala osoa: 0,93 - Azpieskalak: 0,79 eta 0,92 artean (zehaztu gabe)	1. ikerketan: PPUS galdetegiko puntuazioak (eskala osoarenak) beste aldagai batzuekin dituen erlazioak aztertzen dira, besteak beste: adina, generoa eta egoera zibila. 2. ikerketan: PPUS galdetegiko puntuazioak (eskala osoarenak) beste aldagai batzuekin dituzten erlazioak aztertzen dira: sintoma psikopatologikoak, autoestimua, jokabide sexualarekin erlazioan dutako estresa eta arazo funtzionalak, harreman intimoetan segurtasunik eza, bestelako jokabide-adikzioak (sexuarekiko adikzioa, Internetekiko adikzioa eta jokorako adikzioa), eta gertaera traumatikoen historia.
		1. ikerketan: Osagai nagusien analisiak lau osagaiz osatutako egitura ortogonal iradokitzen du. 2. ikerketan: Berrespenezko faktore-analisiak 1. ikerketako analisisan agertutako lau faktoreko egitura ortogonal berresten du, doikuntza ez oso egokiarekin (RMSEAren balioa 0,09koa balta).	Pornografiaren kontsumoa neurtzen duten beste tresna batzuekin efektuaren tamaina handiko korrelazio estatistikoki esanguratsuak eta positiboak agertzen ditu: 0,56koa CPUJren puntuazio totalarekin eta 0,49 eta 0,69 artekoak PCiren azpieskalekin.

FIDAGARRITASUNA		BALIOZKOTASUNA				
ERREFE- RENTZIA	TRESNA	BARNE-TRINKOTASUNA ¹	DENBORA- EGONKORTASUNA (¹ TEST-BIRTEST FIDAGARRITASUNA)	BARNE-EGITURAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA ²	BALIOZKOTASUN KONBERGENTEA	BESTE ALDAGAEKIKO ERLAZIOAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA
Kraus eta Rosen- berg (2014)	Pornography Craving Questionnaire (PCQ)	1. ikerketan: 0,91 2. ikerketan: 0,92	2. ikerketan: 44 pertsonaz osatutako azpilagin batekin, astebeteko tartearekin, tresnak denbora- egonkortasun handia agertu zuen ($r = 0,82$; $p < 0,001$).	Osagai nagusien analisiak osagai bakarreko egitura iradokitzen du.	—	1. ikerketan: PCQ galdetegiko puntuazioak beste aldagai batzuekin dituen erlazioak aztertzen dira: pornografiarekiko kezka, konpulsibitate sexuala, Internet modu konpulsiboan erabiltzea eta sentsazio berrien bilaketa.
						2. ikerketan: PCQ galdetegiko puntuazioak hurrengo asteko pornografiaren erabilera aurrebateko gaitasuna aztertzen da.
Noor <i>et al.</i> (2014)	Compulsive Pornography Consumption (CPC) scale	- Eskala osoa: 0,85 - Azpieskalak: - Kezka: 0,74 - Konpulsibitatea: 0,78	—	Faktore-analisi arakatzaileak bi faktoreko egitura zeiharra iradokitzen du. Ondorengo berrespenezko faktore-analisiak egitura hori berresten du, doikuntza bikainarekin.	Pornografiaren kontsumoa neurtzen duen PCES tresnaren bertsio laburtuarekin korrelazio nulia azaltzen du ($r = 0,03$; $p > 0,05$).	CPC galdetegiko puntuazioek (eskala osoarenak zein azpieskalenak) beste aldagai batzuekin dituzten erlazioak aztertzen dira: afektu positiboak, afektu negatiboak, desiragarritasun soziala, jokabide sexual konpulsiboak, barneratutako homonegatibitatea eta autoestimu sexuala.

FIDAGARRITASUNA		BALIOZKOTASUNA				
ERREFE-RENTZIA	TRESNA	BARNE-TRINKOTASUNA ¹	DENBORA-EGONKORTASUNA (TEST-BIRTEST FIDAGARRITASUNA)	BARNE-EGITURAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA ²	BALIOZKOTASUN KONBERGENTEA	BESTE ALDAGAEKIKO ERLAZIOAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA
Böthe <i>et al.</i> (2018)	Problematic Pornography Consumption Scale (PPCS)	- Eskala osoa: 0,93 - Azpieskalak: - Salientzia: 0,77 - Aldartearen aldaketa: 0,84 - Gatazka: 0,71 - Tolerantzia: 0,78 - Berrerotzea: 0,86 - Alzera egitea: 0,86	—	Berrespenezko faktore-analisiak <i>higher-order</i> egitura iradokitzen du, sei faktorez eta superordenatutako konstruktut batez (pornografiaren kontsumo arazotsua) osatua, doikuntza onargarriarekin.	—	—
Cacioppo <i>et al.</i> (2018)	Cyber Pornography Addiction Test (CYPAT)	0,96	—	Faktore-analisi arakatzailerak faktore bakarreko egitura iradokitzen du. Ondorengo berrespenezko faktore-analisiak egitura hori berresten du, doikuntza desagokiarekin (RMSEaren balioa 0,113koa baita).	Pornografiaren kontsumoa neurtzen duen CPUI tresnarekin efektuaren tamaina handiko korrelazio estatistikoki esanguratsuak eta positiboak agertzen ditu (0,77 eta 0,86 artekoak).	CYPAT galdetegiko puntuazioak beste aldagai batzuekin dituen erlazioak aztertzen dira: familia-moldakortasuna eta -kohesioa, eta alexitimia.

FIDAGARRITASUNA		BALIOZKOTASUNA		BALIOZKOTASUNA		BESTE ALDAGAEKIKO ERLAZIOAN OINARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA	
TRESNA	BARNE-TRINKOTASUNA ¹	DENBORA-EGONKORTASUNA (TEST-BIRTEST FIDAGARRITASUNA)	BARNE-EGITURAN OINARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA ²	BALIOZKOTASUN KONBERGENTEA			
ERREFE-RENTZIA	Pornography Usage Measure (PUM)	0,71	—	Faktore-analisi arakatzailleak <i>bifactor</i> eredu bat iradokitzen du.	Pornografiaren kontsumoa neurtzen duten beste item batzuekin efektuaren tamaina handiko korrelazio estatistikoki esanguratsuak eta positiboak agertzen ditu: bideo pornografiaren erabilera-maiztasuna ($r=0,52$; $p<0,01$) eta irudi pornografiaren erabilera ($r=0,55$; $p<0,01$).		PUM galdetegiko puntuazioak harreman erromantikoan ezegonkortasunarekin duen erlazioa aztertzen da.
					Pornografiaren kontsumoa neurtzen duen PPUS tresnaren "Gehiegizko erabilera" dimentsioarekin efektuaren tamaina erlaintzeko korrelazio estatistikoki esanguratsua eta positiboa agertzen du ($r = 0,41$; $p < 0,001$). Azpieskalek ere gisa horretako koefizienteak agertzen dituzte, "Nahita egindako pornografiaren esposizioa eta kitzikapena" azpieskalak izan ezik, zeinak korrelazio txikia agertzen baitu ($r = 0,26$; $p < 0,001$).		COPS-G galdetegiaren puntuazioek (eskala osoarenak zein azpieskalenak) beste aldagai batzuekin dituzten erlazioak aztertzen dira: sexu-gogobetetasuna, depresio-sintomatologia, sentazio sexual berrien bilaketa eta generoa.
Hatch <i>et al.</i> (2020)	The Consumption of Pornography Scale – General (COPS–G)	- Eskala osoa: 0,843 (ω) - Azpieskalak: - Pornografiaren kontsumoaren maiztasuna: 0,879 (ω) - Pornografiaren kontsumoaren iraupena: 0,885 (ω) - Nahi gabe egindako pornografiaren esposizioa eta kitzikapena: 0,871 (ω) - Nahita egindako pornografiaren esposizioa eta kitzikapena: 0,853 (ω)	Tresnak denbora-egonkortasun handia agertu zuen hilaibetera ($r = 0,82$), bi hilaibetera ($r = 0,76$), hiru hilaibetera ($r = 0,75$), lau hilaibetera ($r = 0,73$), bost hilaibetera ($r = 0,76$) eta sei hilaibetera ($r = 0,74$). Azpieskalek ere antzeko koefizienteak agertu zituzten.	Berrespenezko faktore-analisiak erakusten du faktore orokor batez eta lau azpifaktorez osatutako <i>bifactor</i> eredu dela doikuntza onena agertzen duen eredu, doikuntza hori onargarria izanik.	Pornografiaren kontsumoa neurtzen duen PPUS tresnaren "Gehiegizko erabilera" dimentsioarekin efektuaren tamaina erlaintzeko korrelazio estatistikoki esanguratsua eta positiboa agertzen du ($r = 0,41$; $p < 0,001$). Azpieskalek ere gisa horretako koefizienteak agertzen dituzte, "Nahita egindako pornografiaren esposizioa eta kitzikapena" azpieskalak izan ezik, zeinak korrelazio txikia agertzen baitu ($r = 0,26$; $p < 0,001$).		COPS-G galdetegiaren puntuazioek (eskala osoarenak zein azpieskalenak) beste aldagai batzuekin dituzten erlazioak aztertzen dira: sexu-gogobetetasuna, depresio-sintomatologia, sentazio sexual berrien bilaketa eta generoa.

ERREFE-RENTZIA		FIDAGARRITASUNA		BALIOZKOTASUNA	
TRESNA	BARNE-TRINKOTASUNA ¹	DENBORA-EGONKORTASUNA (TEST-BIRTEST FIDAGARRITASUNA)	BARNE-EGITURAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA ²	BALIOZKOTASUN KONBERGENTEA	BESTE ALDAGAIEKIKO ERLAZIOAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA
Kraus <i>et al.</i> (2020)	Brief Pornography Screen (BPS)	—	1. ikerketan: Osagai nagusien analisiak osagai bakarreko egitura iradokitzen du.	1. ikerketan: <i>Craving</i> -a neurtzen duen PCQ tresnarekin efektuaren tamaina ertaineko korrelazio estatistikoki esanguratsuak eta positiboak agertzen ditu bai emakumeen kasuan ($r=0,32$; $p<0,05$), bai gizonen kasuan ($r=0,45$; $p<0,01$). Pornografiaren kontsumoa neurtzen duen PPUS tresnarekin efektuaren tamaina handiko korrelazio estatistikoki esanguratsuak eta positiboak agertzen ditu bai emakumeen kasuan ($r=0,77$; $p<0,01$), bai gizonen kasuan ($r=0,75$; $p<0,01$).	1. ikerketan: BPS galdetegiaren puntuazioak beste aldagai batzuekin dituen erlazioak aztertzen dira: pornografiaren erabilera-maiztasuna, jokabide hipersexuala eta inpulsibitatea.
			2. ikerketan: Berrespenezko faktore-analisiak 1. ikerketako egitura unidimentsionala berresten du, doikuntza bikainarekin.		2. eta 3. ikerketetan: BPS galdetegiaren puntuazioak beste aldagai batzuekin dituen erlazioak aztertzen dira, besteak beste: generoa, pornografiaren erabilera-maiztasuna eta larritasun psikologikoa.
			3. ikerketan: Berrespenezko faktore-analisiak 1. eta 2. ikerketetako egitura unidimentsionala berresten du, doikuntza bikainarekin.		

ERREFE- RENTZIA		FIDAGARRITASUNA		BALIOZKOTASUNA		BESTE ALDAGAIEKIKO ERLAZIOAN OINARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA
TRESNA		BARNE-TRINKOTASUNA ¹	DENBORA- EGONKORTASUNA (TEST-BIRTEST FIDAGARRITASUNA)	BARNE-EGITURAN OINARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA ²	BALIOZKOTASUN KONBERGENTEA	
Rahman <i>et al.</i> (2020)		Questionnaire on Pornography Attitudes and Exposure (PORQUE)	—	Faktore-analisi arakatzaileak bost faktoreko egitura zeiharra iradokitzen du eta berrespenezko faktore-analisiak egitura hori berresten du, doikuntza onargarriarekin.	—	2. eta 3. ikerketetan: Pornografiaren kontsumoa neurtzen duen CPUJ tresnaren bertsio laburtuarekin efektuaren tamaina ertaineko korrelazio estatistikoki esanguratsuak eta positiboak agertzen ditu bai emakumeen kasuan (<i>r</i> =0,32; <i>p</i> <0,05), bai gizonen kasuan (<i>r</i> =0,45; <i>p</i> <0,01).

FIDAGARRITASUNA		BALIOZKOTASUNA				
ERREFE- RENTZIA	TRESNA	BARNE-TRINKOTASUNA ¹	DENBORA- EGONKORTASUNA (TEST-BIRTEST FIDAGARRITASUNA)	BARNE-EGITURAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA ²	BALIOZKOTASUN KONBERGENTEA	BESTE ALDAGAEKIKO ERLAZIOAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA
Ergün (2023)	Online Pornography Addiction Scale (OPAS)	1. ikerketan: - Eskala osoa: 0,93 - Azpieskalak: - Konpulsibitatea- kontrolaezintasuna: 0,93 - Efektu psikosoziala: 0,92 - Efektu sexuala: 0,85 - Tolerantzia - atzera egitea: 0,85	—	1. ikerketan: Osagai nagusien analisiak lau faktoreko egitura zehharra iradokitzen du.	—	2. ikerketan: OPAS galdetegiko puntuazioak (eskala osoarenak zein azpieskalenak) autoeraginikortasun sexualarekin duten erlazioa aztertzen da.
		2. ikerketan: - Eskala osoa: 0,93 - Azpieskalak: - Konpulsibitatea- kontrolaezintasuna: 0,92 - Efektu psikosoziala: 0,89 - Efektu sexuala: 0,87 - Tolerantzia - atzera egitea: 0,82		3. ikerketan: OPAS galdetegiko puntuazioak beste aldagai batzuekin dituen erlazioak aztertzen dira, besteak beste: generoa, heziketa-maila, bizi-gogobetetasuna, estresa, zoriontasuna eta itxaropenik eza.		
		3. ikerketan: - Eskala osoa: — - Azpieskalak: 0,88 eta 0,93 arteak (zehaztu gabe)				

FIDAGARRITASUNA		BALIOZKOTASUNA	
ERREFE-RENTZIA	TRESNA	DENBORA-EGONKORTASUNA (TEST-BIRTEST FIDAGARRITASUNA)	BALIOZKOTASUNA KONBERGENTEA
Lawless et al. (2023)	Pornography Use in Romantic Relationships Scale (PURRS)	BARNE-TRINKOTASUNA ¹	BARNE-EGITURAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA ²
		BESTE ALDAGAEIKIO ERLAZIOAN ONARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA	
• Eskala osoa: — • Azpieskalaketa: ◦ Maiztasuna: 0.94 ◦ Porno erakargarria: 0.93 ◦ <i>Craving</i>-a: 0.81 ◦ Masturbazioa: 0.75 ◦ Hobetsitako pornoa: 0.85 ◦ Sekretua: 0.78 ◦ Kidearen ordezkapena: 0.81 ◦ Erabilera bateratua: 0.93 ◦ Hezkuntza sexuala: 0.76 ◦ Harreman-edukia: 0.90 ◦ Eduki agresiboa: 0.82 ◦ Adostasunik gabeko edukia: 0.94 ◦ Eduki ez-monogamia: 0.63 1. Ikerketan: Faktore-analisi arakatzailerak lehen ordenako 13 faktoreko egitura zeiharra iradokitzen du. Berrespeneko faktore-analisiak egitura hori berresten du, doikuntza onargarriarekin. 2. Ikerketan: Berrespeneko faktore-analisiak, 1. ikerketako barne-egitura berresten du, doikuntza onargarriarekin. PURRS galdetegioko puntuazioak (eskala osoarenak zein azpieskalenak) beste aldagai batzuekin dituzten erlazioak aztertzen dira: bikote-kidearekin konparaketak egitea, pornografiarekiko adikzioa, bikote-harremanaren kalitatea, bikote-kidearekiko tratu txarrak eta pornografiaren kontsumoaren hautemandako irabaziak.			

ERREFE-RENTZIA		FIDAGARRITASUNA		BALIOZKOTASUNA		BESTE ALDAGAIEKIKO ERLAZIOAN OINARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA
TRESNA		BARNE-TRINKOTASUNA ¹	DENBORA-EGONKORTASUNA (TEST-BIRTEST FIDAGARRITASUNA)	BARNE-EGITURAN OINARRITUTAKO BALIOZKOTASUNA ²	BALIOZKOTASUN KONBERGENTEA	
Brahim <i>et al.</i> (2024)		Pomography Craving Experience – Strength form (PCE-S)	—	Faktore-analisi arakatzailaiek hiru faktoreko egitura ortogonal iradokitzen du. Berrespenezko faktore-analisian 3 faktoreko egitura zehharra izan zen doikuntza onena, agertu zuena, doikuntza ez oso egokiarekin (RMSEAren balioa 0,09koa balta).	Pornografiaren kontsumoa neurtzen duen CIUS-Adapted tresnarekin efektuaren tamaina ertaineko korrelazio estatistikoki esanguratsuak eta positiboak agertzen dituzte Iruditeria azpieskalak ($r=0.39$; $p<0.01$), Intentsitatea azpieskalak ($r=0.44$; $p<0.01$) eta Intrusioa azpieskalak ($r=0.44$; $p<0.01$). Halaber, azpieskala horien puntuazioek efektuaren tamaina txikiko korrelazio estatistikoki esanguratsuak eta positiboak agertzen dituzte ziberpornografiaren erabilera-maiztasunarekin, erabilera-itraupenarekin eta inputsibiltatearekin.	—

Oharra. E. E. = Ez eskuragarri; ω = McDonald-en omega.

¹ Barne-trinkotasunaren zutabean, aurkezten diren koefizienteak Cronbach-en alfa dira, kontratikorik aipatzen ez bada. DeVellis eta Thorpe-ren (2021) irizpideei jarraikiz, egokitzat hartu ziren 0,70etik gorako indizeak.

² Barne-egituran oinarritutako baliozkotasunean, literatura zientifikoa gehien erabiltzen diren irizpideei jarraikiz (Ikus Brown, 2015; Browne eta Cudeck, 1992; Hu eta Bentler, 1999; Schermelleh-Engel *et al.*, 2003), doikuntza ontzat jo dira hurrengo indizeak dituzten ereduak: Root Mean Square Error of Approximation (RMSEA) ≤ 0.05 ; Comparative Fit Index (CFI) ≥ 0.95 edo/eta Tucker-Lewis Index (TLI) ≥ 0.95 . Era berean, doikuntza onagarritzat jo dira hurrengo indizeak dituzten ereduak: RMSEA ≤ 0.08 ; CFI ≥ 0.90 edo/eta TFI ≥ 0.90 . Gainerako indizeak dituzten ereduak desagokitzat jo dira.

4. Eztabaida

Irismen-berrikuspenaren helburu nagusia zen pornografiaren kontsumoa neurtzeko erabiltzen diren tresnak identifikatzea eta haien ezaugarri psikometrikoak aztertzea. Emaitzek adierazten dute kontsumo horiek neurtzeko hainbat tresna daudela eskuragarri literatura zientifikoan, eta nahiko berriak dira: tresna zaharrena 2008. urtekoa da, eta tresnen erdiak baino gehiago 2018. urtetik aurrera argitaratu dira. Hori ez da harritzekoa, izan ere, pornografiaren kontsumoarekiko interes zientifikoa duela bi hamarkada hasi zenez geroztik, hari buruzko ikerketen kopurua esponentzialki igo da (Butler *et al.*, 2017; Grubbs *et al.*, 2015); eta, ondorioz, baita neurketa-tresnen eraikuntza ere. Beraz, esan daiteke pornografiaren kontsumoaren neurketa berritasun handiko ikerketa-gaia dela. Berrikuspenean barne hartutako tresnek, oro har, fidagarritasun- eta baliozkotasun-ebidentzia ugari agertu dituzten arren, badira tresna horien baliozkotze-prozesuari buruz egin beharreko zenbait ohar.

Hasteko, berrikuspenean jasotako tresna guztiak, bat salbu, 18 urtetik gorako laginekin baliozkotu dira. Hori bat dator ikerketaren alorrean nagusi den joerarekin, pornografiari lotutako ikerketen gehiengoa adinez nagusiak diren pertsonekin egin baita (Ballester-Arnal *et al.*, 2023). Hala ere, errealitate horrek kontrastatu egiten du adin goiztiarragoetan aurkitu den pornografiaren kontsumo-patroiekin. Save The Children (2020) erakundearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan hamar nerabetatik zazpi kontsumitzen du pornografia, eta lehen aldia, batez beste, 12 urterekin izan ohi da. Hitz gutxitan, pornografiaren kontsumoa oso adin goiztiarrean hasten da. Gogora bedi nerabezaroa garapen kognitibo, emozional, sozial eta sexual handiko garapen-aroa dela (Kar *et al.*, 2015), eta, horrexegatik, sexu-heziketa integrala bermatu ezean, nerabeak bereziki zaurgarriak dira pornografiaren kontsumoaren ondorio negatiboekiko (Owens *et al.*, 2012). Horiek horrela, beharrezkoa litzateke pornografiaren kontsumoa neurtzeko tresnak nerabeen populazioarekin ere baliozkotzea.

Bestalde, parte-hartzaileen generoari erreparatuz, azpimarragarria da lau tresna gizonetan soilik baliozkotu direla. Hainbat ikerketak aurkitu dute gizonen kontsumotasuna emakumeena baino handiagoa dela (Ballester-Arnal *et al.*, 2021), eta horrek, hein batean, tresna batzuk gizonekin soilik baliozkotuta egotea azal dezake. Alabaina, emakumeek ere kontsumitzen dute pornografia, eta, ildo horretatik, litekeena da generoaren araberrako bereizketa hori baliagarria ez izatea. Pornografiak emakumea sexu-objektu gisa irudikatzea sustatzen duela kontuan hartuta, haren kontsumoak, genero-estereotipoak indartzeaz gain, emakume erabiltzaileengan bereizgarriak diren ondorio negatiboak ekar ditzake; besteak beste, beren autoestimua eta autoirudia okertzea, eta sexu-harremanei begira rol otzana berenganatzea (Fernández-Ruiz *et al.*, 2023). Horregatik, Ashton eta besterekin (2018) bat etorritz, orain arteko ikerketek emakumeei arreta gutxi eskaini dieten arren, etorkizuneko ikerketek fokua emakumeengan ere jarri beharko lukete.

Azkenik, pornografiaren kontsumoa neurtzeko dimentsio edo azpieskalen kopurua eta esanahiak aldakorrek dira berrikuspenean jasotako tresna batetik bestera. Hori konstruktuaeren bueltan dagoen anabasa teorikoaren isla da. Pornografiaren kontsumoaren definizio anitz proposatu diren arren, badaude

arrazoi ezberdinengatik proposamenekin bat ez datozenak ere. Hori dela-eta, egun oraindik pornografiaren kontsumoaren definizio adostu eta estandarizatu baten gabezia dago (Kohut *et al.*, 2020; Marshall eta Miller, 2019; Short *et al.*, 2012). Ondorioz, pornografiaren kontsumoa neurtzeko osagaien zehaztasunik ere ez dago. Ildo beretik, heterogeneotasun handia dago tresna batetik bestera neurtzen diren osagaiei dagokienez: adikzioa, erabilera, jarrerak eta abar. Heterogeneotasun horrek iradokitzen du egungo tresnek ez dutela zehazki fenomeno bera neurtzen, oraindik definitzeke dagoen konstruktua baten azpiko zenbait alderdi baizik. Halaber, komunitate zientifikoak adostasun batera heldu behar du, pornografiaren kontsumoaren konstruktua finkatzeko eta haren neurketa estandarizatu bermatzeko. Etorkizunari begira, beraz, pornografiaren kontsumoaren neurketarako barne hartu beharreko osagaiak definitzea beharrezkoa da, irismen-berrikuspen baten bidez edo/eta aditu-taldearen eztabaidaren bidez.

Ondorio gisa, pornografiaren kontsumoa neurtzeko tresna anitz daude, eta, gainera, fidagarritasun- eta baliozkotasun-ebidentzia onargarriak erakutsi dituzte. Aitzitik, pornografiaren kontzeptualizazioari buruzko adostasunik ezak, haren kontsumoa neurtzeko osagaien zehaztasun falta eragiten du. Pornografiaren kontzeptualizazioari heldu dioten literatura-berrikuspenekin bat eginez, pornografiaren kontsumoarekin lotutako anabasa teorikoak zalantzan jartzen du tresnen egokitasuna (Kohut *et al.*, 2020; Marshall eta Miller, 2019; Short *et al.*, 2012). Ez hori bakarrik, ikerketen emaitzen arteko konparaketak egitea ere oztopatzen du (Wéry eta Billieux, 2017). Etorkizunari begira, beraz, nahitaezkoa da komunitate zientifikoaren baitan adostasun batera iristea pornografiaren kontsumoaren kontzeptualizazioari dagokionez. Horrela bakarrik eraiki ahal izango dira neurketa-tresna sendoak, zeintzuk ezinbestekoak baitira pornografiaren kontsumoari heltzen dioten esku-hartze eraginkorrak diseinatzeko, baita gerora esku-hartze horien eraginkortasuna aztertzeko ere.

Amaitzeko, aipa bedi gaur egun ez dagoela pornografiaren kontsumoa neurtzeko tresnarik euskaraz baliozkotuta. Haatik, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, euskaraz baliozkotutako neurketa-tresnak eskuragarri izatea beharrezkoa da (Lameirinhas eta Gorostiaga, 2020). Ildo horretatik, etorkizunari begira, kontsumo hori neurtzeko euskarazko tresna bat eraikitzeari edo egokitzeari ekiteko beharrezkoa azpimarratu nahi genuke, euskal gizartean pornografiaz egiten den kontsumoa neurtzeko aukera emango duena, gerora kontsumo horretatik erator daitezkeen arriskuei modu prebentiboan eta eraginkorrean heltze aldera.

5. Erreferentzia bibliografikoak

- Arksey, H., eta O'Malley, L. (2005). Scoping studies: Towards a methodological framework. *International Journal of Social Research Methodology*, 8(1), 19-32. <https://doi.org/10.1080/1364557032000119616>
- Ashton, S., McDonald, K., eta Kirkman, M. (2018). Women's experiences of pornography: A systematic review of research using qualitative methods. *Journal of Sex Research*, 55(3), 334-347. <https://doi.org/10.1080/00224499.2017.1364337>

- Ballester-Arnal, R., Gil-Julia, B., Elipe-Miravet, M., Giménez-García, C., eta Gil-Llario, M.D. (2023). Experiences and psychological impact derived from unwanted exposure to online pornography in Spanish adolescents. *Sexuality Research and Social Policy*. <https://doi.org/10.1007/s13178-023-00888-y>
- Ballester-Arnal, R., Castro-Calvo, J., García-Barba, M., Ruiz-Palomino, E., eta Gil-Llario, M.D. (2021). Problematic and non-problematic engagement in online sexual activities across the lifespan. *Computers in Human Behavior*, 120, 106774 artikulua. <https://doi.org/10.1016/j.chb.2021.106774>
- Ballester, L., Rosón, C., Noya, M., eta Calderón-Cruz, B. (2022). Characteristics of online pornography and interventions against its negative effects in young people: Results from an international Delphi panel. *Journal of Rational-Emotive & Cognitive-Behavior Therapy*, 40, 634-646. <https://doi.org/10.1007/s10942-021-00425-z>
- Binnie, J., eta Reavey, P. (2020). Problematic pornography use: Narrative review and a preliminary model. *Sexual And Relationship Therapy*, 35(2), 137-161. <https://doi.org/10.1080/14681994.2019.1694142>
- Bolshinsky, V., eta Gelkopf, M. (2019). Reasons and risk factors of problematic engagement in online sexual activities. *Sexual Addiction & Compulsivity*, 26(3-4), 262-292. <https://doi.org/10.1080/10720162.2019.1645062>
- *Böthe, B., Tóth-Király, I., Zsila, Á., Griffiths, M.D., Demetrovics, Z., eta Orosz, G. (2018). The development of the Problematic Pornography Consumption Scale (PPCS). *Journal of Sex Research*, 55(3), 395-406. <https://doi.org/10.1080/00224499.2017.1291798>
- *Brahim, F.B., Cruz, G.V., Courtois, R., May, J., eta Khazaal, Y. (2024). Strength of Pornography Craving Experience (PCE-S): Psychometric properties of a new measure based on the elaborated intrusion theory of desire. *Addictive Behaviors*, 148, 107858 artikulua. <https://doi.org/10.1016/j.addbeh.2023.107858>
- Brown, T.A. (2015). *Confirmatory factor analysis for applied research* (2. arg.). The Guilford Press.
- Browne, M.W., eta Cudeck, R. (1992). Alternative ways of assessing model fit. *Sociological Methods & Research*, 21(2), 230-258. <https://doi.org/10.1177/0049124192021002005>
- *Busby, D.M., Willoughby, B.J., Chiu, H.-Y., eta Olsen, J.A. (2020). Measuring the multidimensional construct of pornography: A long and short version of the Pornography Usage Measure. *Archives of Sexual Behavior*, 49, 3027-3039. <https://doi.org/10.1007/s10508-020-01688-w>
- Butler, M.H., Pereyra, S.A., Draper, T.W., Leonhardt, N.D., eta Skinner, K.B. (2017). Pornography use and loneliness: A bidirectional recursive model and pilot investigation. *Journal Of Sex & Marital Therapy*, 44(2), 127-137. <https://doi.org/10.1080/0092623x.2017.1321601>
- *Cacioppo, M., Gori, A., Schimmenti, A., Baiocco, R., Laghi, F., eta Caretti, V. (2018). Development of a new screening tool for cyber pornography: Psychometric properties of the Cyber Pornography Addiction Test (CYPAT). *Clinical Neuropsychiatry*, 15(1), 50-55.
- Cooper, A. (1998). Sexuality and the Internet: Surfing into the new millennium. *Cyberpsychology & Behavior*, 1(2). <https://doi.org/10.1089/cpb.1998.1.187>
- de Alarcón, R., de la Iglesia, J.I., Casado, N.M., eta Montejo, A.L. (2019). Online porn addiction: What we know and what we don't—A systematic review. *Journal of Clinical Medicine*, 8(1), 91 artikulua. <https://doi.org/10.3390/jcm8010091>
- DeVellis, R.F., eta Thorpe, C.T. (2021). *Scale development: Theory and applications* (5. arg.). Sage.

- *Downing, M.J., Jr., Antebi, N., eta Schrimshaw, E.W. (2014). Compulsive use of Internet-based sexually explicit media: Adaptation and validation of the Compulsive Internet Use Scale (CIUS). *Addictive Behaviors*, 39(6), 1126-1130. <https://doi.org/10.1016/j.addbeh.2014.03.007>
- Duggan, S.J., eta McCreary, D.R. (2004). Body image, eating disorders, and the drive for muscularity in gay and heterosexual men: The influence of media images. *Journal of Homosexuality*, 47(3-4), 45-58. https://doi.org/10.1300/J082v47n03_03
- *Ergün, N. (2023). Developing the Online Pornography Addiction Scale and examining its associations with psychosocial factors. *Behavioral Psychology / Psicología Conductual*, 31(2), 269-299. <https://doi.org/10.51668/bp.8323203n>
- Fernández-Ruiz, M., López-Entrambasaguas, O.M., Martínez-Linares, J.M., eta Granero-Molina, J. (2023). Young women's attitudes and concerns regarding pornography and their sexual experiences: A qualitative approach. *Healthcare*, 11(21), 2877 artikulua. <https://doi.org/10.3390/healthcare11212877>
- Flake, J.K., eta Fried, E.I. (2020). Measurement schmeasurement: Questionable measurement practices and how to avoid them. *Advances in Methods and Practices in Psychological Sciences*, 3(4), 456-465. <https://doi.org/10.1177/2515245920952393>
- *Grubbs, J.B., Sessoms, J., Wheeler, D.M., eta Volk, F. (2010). The Cyber-Pornography Use Inventory: The development of a new assessment instrument. *Sexual Addiction & Compulsivity*, 17(2), 106-126. <https://doi.org/10.1080/10720161003776166>
- Grubbs, J.B., Volk, F., Exline, J.J., eta Pargament, K.I. (2015). Internet pornography use: Perceived addiction, psychological distress, and the validation of a brief measure. *Journal of Sex and Marital Therapy*, 41(1), 83-106. <https://doi.org/10.1080/0092623X.2013.842192>
- *Hald, G.M., eta Malamuth, N.M. (2008). Self-perceived effects of pornography consumption. *Archives of Sexual Behavior*, 37, 614-625. <https://doi.org/10.1007/s10508-007-9212-1>
- Hare, K.A., Gahagan, J., Jackson, L., eta Steenbeek, A. (2015). Revisualising 'porn': How young adults' consumption of sexually explicit Internet movies can inform approaches to Canadian sexual health promotion. *Culture, Health, & Sexuality*, 17(3), 269-283. <https://doi.org/10.1080/13691058.2014.919409>
- *Hatch, S.G., Esplin, C.R., Hatch, H.D., Halstead, A., Olsen, J., eta Braithwaite, S.R. (2020). The Consumption of Pornography Scale – General (COPS – G). *Sexual and Relationship Therapy*, 38(2), 194-218. <https://doi.org/10.1080/14681994.2020.1813885>
- Hernández, A., Ponsoda, V., Muñiz, J., Prieto, G., eta Elosua, P. (2016). Revisión del modelo para evaluar la calidad de los tests utilizados en España. *Papeles del Psicólogo / Psychologist Papers*, 37, 192-197.
- Hu, L., eta Bentler, P.M. (1999). Cutoff criteria for fit indexes in covariance structure analysis: Conventional criteria versus new alternatives. *Structural Equation Modeling*, 6(1), 1-55. <https://doi.org/10.1080/10705519909540118>
- Irizarry, R., Gallaher, H., Samuel, S., Soares, J., eta Villela, J. (2023). How the rise of problematic pornography consumption and the COVID-19 pandemic has led to a decrease in physical sexual interactions and relationships and an increase in addictive behaviors and cluster B personality traits: A meta-analysis. *Cureus*, 15(6), e40539 artikulua. <https://doi.org/10.7759/cureus.40539>
- Kar, S.K., Choudhury, A., eta Singh, A.P. (2015). Understanding normal development of adolescent sexuality: A bumpy ride. *Journal of Human Reproductive Sciences*, 8(2), 70-74. <https://doi.org/10.4103/0974-1208.158594>

- Kohut, T., Balzarini, R.N., Fisher, W.A., Grubbs, J.B., Campbell, L., eta Prause, N. (2020). Surveying pornography use: A shaky science resting on poor measurement foundations. *Journal Of Sex Research*, 57(6), 722-742. <https://doi.org/10.1080/00224499.2019.1695244>
- *Kor, A., Zilcha-Mano, S., Fogel, Y.A., Mikulincer, M., Reid, R.C., eta Potenza, M.N. (2014). Psychometric development of the Problematic Pornography Use Scale. *Addictive Behaviors*, 39(5), 861-868. <https://doi.org/10.1016/j.addbeh.2014.01.027>
- *Kraus, S.W., Gola, M., Grubbs, J.B., Kowalewska, E., Hoff, R.A., Lew-Starowicz, M., Martino, S., Shirk, S.D., eta Potenza, M.N. (2020). Validation of a Brief Pornography Screen across multiple samples. *Journal of Behavioral Addictions*, 9(2), 259-271. <https://doi.org/10.1556/2006.2020.00038>
- *Kraus, S., eta Rosenberg, H. (2014). The Pornography Craving Questionnaire: Psychometric properties. *Archives of Sexual Behavior*, 43, 451-462. <https://doi.org/10.1007/s10508-013-0229-3>
- Lameirinhas, J., eta Gorostiaga, A. (2020). Goldberg-en Antsietate eta Depresio Eskala: Euskarazko egokitzapenaren ikerketa pilotua. *Uztaro*, 114, 59-78. <https://doi.org/10.26876/uztaro.114.2020.3>
- Landis, J.R., eta Koch, G.G. (1977). The measurement of observer agreement for categorical data. *Biometrics*, 33(1), 159-174. <https://doi.org/10.2307/2529310>
- *Lawless, N., Karantzas, G., eta Knox, L. (2023). The development and validation of the Pornography Use in Romantic Relationships Scale. *Archives of Sexual Behavior*, 52, 1799-1818. <https://doi.org/10.1007/s10508-023-02534-5>
- Levac, D., Colquhoun, H., eta O'Brien, K.K. (2010). Scoping studies: Advancing the methodology. *Implementation Science*, 5, 69 artikulua. <https://doi.org/10.1186/1748-5908-5-69>
- Litsou, K., Graham, C., eta Ingham, R. (2021). Women in relationships and their pornography use: A systematic review and thematic synthesis. *Journal of Sex & Marital Therapy*, 47(4), 381-413. <https://doi.org/10.1080/0092623X.2021.1885532>
- Marshall, E.A., eta Miller, H.A. (2019). Consistently inconsistent: A systematic review of the measurement of pornography use. *Aggression and Violent Behavior*, 48, 169-179. <https://doi.org/10.1016/j.avb.2019.08.019>
- Mauer-Vakil, D., eta Bahji, A. (2020). The addictive nature of compulsive sexual behaviours and problematic online pornography consumption: A review. *Canadian Journal of Addiction*, 11(3), 42-51. <https://doi.org/10.1097/CXA.0000000000000091>
- Miller, D.J., Hald, G.M., eta Kidd, G. (2018). Self-perceived effects of pornography consumption among heterosexual men. *Psychology of Men & Masculinity*, 19(3), 469-476. <https://doi.org/10.1037/men0000112>
- Munn, Z., Peters, M.D.J., Stern, C., Tufanaru, C., McArthur, A., eta Aromataris, E. (2018). Systematic review or scoping review? Guidance for authors when choosing between a systematic or scoping review approach. *BMC Medical Research Methodology*, 18, 143 artikulua. <https://doi.org/10.1186/s12874-018-0611-x>
- *Noor, S.W., Rosser, B.R.S., eta Erickson, D.J. (2014). A brief scale to measure problematic sexually explicit media consumption: Psychometric properties of the Compulsive Pornography Consumption (CPC) scale among men who have sex with men. *Sexual Addiction & Compulsivity*, 21(3), 240-261. <https://doi.org/10.1080/10720162.2014.938849>
- Owens, E.W., Behun, R.J., Manning, J.C., eta Reid, R.C. (2012). The impact of internet pornography on adolescents: A review of the research. *Sexual Addiction & Compulsivity*, 19(1-2), 99-122. <https://doi.org/10.1080/10720162.2012.660431>
- Peters, M.D.J., Arnall, C., Colquhoun, H., Garritty, C.M., Hempel, S., Horsley, T., Langlois, E.V., Lillie, E., O'Brien, K.K., Tunçalp, Ö., Wilson, M.G., Zarin, W., eta Tricco, A.C. (2020). A scoping review of the impact of pornography on adolescents. *Journal of Adolescent Health*, 67(1), 1-11. <https://doi.org/10.1016/j.jadohealth.2020.03.011>

- A.C. (2021). Scoping reviews: Reinforcing and advancing the methodology and application. *Systematic Reviews*, 10, 263 artikulua. <https://doi.org/10.1186/s13643-021-01821-3>
- Peters, M.D.J., Marnie, C., Tricco, A.C., Pollock, D., Munn, Z., Alexander, A., McInerney, P., Godfrey, C.M., eta Khalil, H. (2020). Updated methodological guidance for the conduct of scoping reviews. *JB I Evidence Synthesis*, 18(10), 2119-2126. <https://doi.org/10.11124/JBIES-20-00167>
- Pollock, D., Peters, M.D.J., Khalil, H., McInerney, P., Alexander, L., Tricco, A.C., Evans, C., de Moraes, E.B., Godfrey, C.M., Pieper, D., Saran, A., Stern, C., eta Munn, Z. (2023). Recommendations for the extraction, analysis, and presentation of results in scoping reviews. *JB I Evidence Synthesis*, 21(3), 520-532. <https://doi.org/10.11124/JBIES-22-00123>
- Pornhub Insights. (2020, urtarilak 8). 2019 year in review. <https://www.pornhub.com/insights/2019-year-in-review>
- Pornhub Insights. (2019, urtarilak 7). 2018 year in review. <https://www.pornhub.com/insights/2018-year-in-review>
- Potenza, M.N. (2018). Pornography in the current digital technology environment: An overview of a special issue on pornography. *Sexual Addiction & Compulsivity*, 25(4), 241-247. <https://doi.org/10.1080/10720162.2019.1567411>
- *Rahman, A.A., Ibrahim, M.I., Rahman, R.A., Arifin, W.N., eta Ahmad, M. (2020). Development and validation of a Malay version of the questionnaire on pornography attitudes and exposure for youth in Kelantan. *Malaysian Journal of Medical Sciences*, 27(2), 129-150. <https://doi.org/10.21315/mjms2020.27.2.14>
- *Reid, R.C., Li, D.S., Gilliland, R., Stein, J.A., eta Fong, T. (2011). Reliability, validity, and psychometric development of the Pornography Consumption Inventory in a sample of hypersexual men. *Journal of Sex & Marital Therapy*, 37(5), 359-385. <https://doi.org/10.1080/0092623x.2011.607047>
- Ross, M.W., Månsson, S.-A., eta Daneback, K. (2012). Prevalence, severity, and correlates of problematic sexual internet use in Swedish men and women. *Archives of Sexual Behavior*, 41(2), 459-466. <https://doi.org/10.1007/s10508-011-9762-0>
- Save The Children. (2020). (Des)información sexual: Pornografía y adolescencia. Anexo Euskadi. <https://www.savethechildren.es/notasprensa/informe-desinformacion-sexual-pornografia-y-adolescencia-anexo-euskadi>
- Schermelleh-Engel, K., Moosbrugger, H., eta Müller, H. (2003). Evaluating the fit of structural equation models: Tests of significance and descriptive goodness-of-fit measures. *Methods of Psychological Research*, 8(2), 23-74.
- Sharpe, M., eta Mead, D. (2021). Problematic pornography use: Legal and health policy considerations. *Current Addiction Reports*, 8, 556-567. <https://doi.org/10.1007/s40429-021-00390-8>
- Short, M.B., Black, L., Smith, A.H., Wetterneck, C.T., eta Wells, D.E. (2012). A review of internet pornography use research: Methodology and content from the past 10 years. *Cyberpsychology, Behavior, and Social Networking*, 15(1), 13-23. <https://doi.org/10.1089/cyber.2010.0477>
- Spencer, T., Seedall, R., eta Gillespie, A. (2025). Achieving change in the treatment of problematic pornography use: A review of common factors. *Contemporary Family Therapy*, 47, 117-128. <https://doi.org/10.1007/s10591-024-09706-y>
- Spenhoff, M., Kruger, T.H.C., Hartmann, U., eta Kobs, J. (2013). Hypersexual behavior in an online sample of males: Associations with personal distress and functional impairment. *Journal of Sexual Medicine*, 10(12), 2996-3005. <https://doi.org/10.1111/jsm.12160>

- Tricco, A.C., Lillie, E., Zarin, W., O'Brien, K.K., Colquhoun, H., Levac, D., Moher, D., Peters, M.D.J., Horsley, T., Weeks, L., Hempel, S., Akl, E.A., Chang, C., McGowan, J., Stewart, L., Hartling, L., Aldcroft, A., Wilson, M.G., Garritty, C., ... Straus, S.E. (2018). PRISMA Extension for Scoping Reviews (PRISMA-ScR): Checklist and explanation. *Annals of Internal Medicine*, 169(7), 467-473. <https://doi.org/10.7326/M18-0850>
- Wéry, A., eta Billieux, J. (2017). Problematic cybersex: Conceptualization, assessment, and treatment. *Addictive Behaviors*, 64, 238-246. <https://doi.org/10.1016/j.addbeh.2015.11.007>
- Wright, P.J., Tokunaga, R., eta Herbenick, D. (2023). But do porn sites get more traffic than TikTok, OpenAI, and Zoom? *Journal of Sex Research*, 60(6), 763-767. <https://doi.org/10.1080/00224499.2023.2220690>
- Wright, P.J., Tokunaga, R., eta Kraus, A. (2016). A meta-analysis of pornography consumption and actual acts of sexual aggression in general population studies. *Journal of Communication*, 66(1), 183-205. <https://doi.org/10.1111/jcom.12201>
- Yar, M. (2020). Protecting children from internet pornography? A critical assessment of statutory age verification and its enforcement in the UK. *Policing: An International Journal*, 43(1), 183-197. <https://doi.org/10.1108/PIJPSM-07-2019-0108>

Oharra. Izartxoarekin (*) adierazitako erreferentziak dira berrikuspenean barne hartu diren ikerlanei dagozkienak.